

Ramon Zallo, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren aholkularia:

**“Kulturaren Euskal Planak
aldaketa sakona ekarri du
kultura politikara”**



Ramon Zallo Elgezabal (Gernika, 1948) UPV-EHUKo katedraduna da eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren aholkularia ikus-entzunezkoel dagozkien gaietan.

Zuzenbide eta Ekonomiako lizentziatua eta Informazio Zientzietako doktorea. Gizarte, kultura eta ekonomia gaietan nahiz komunikazio zientzietan ederki jantzitako aditua dugu, argitaratu dituen zenbait saiakerak erakusten dutenez: *Economía de la comunicación y la Cultura* (1987), *Industrias y políticas culturales en España y País Vasco* (1995) eta *El país de los vascos* (2001). Durango Azokarako argitaratu berri du euskaraz eta gaztelaniaz *Euskal Herria, gaur. Kultura, historia eta gizartea aniztasunaren eta ezagutzaren aroan*. Kulturaren Euskal Planari buruz jardun dugu elkarriketan, hura zertan den jakin guran.

11. or.

5
**Ikastetxeetan
euskararen
erabilera
areagotzeko
asko egin
daiteke**
Erramun Osa

9
**Biltzarretan,
badakizu...**
Patxi Zubizarreta

21
**Garuna, Kaosa
eta Google**
Juan Carlos
Cubelro



Erreportajea: Barraskiloen konpasean *Slow* mugimendua: astiro bizitzen ikasteko garaia

Berandu baino lehen, bizimodu berriaren garaia da. Moteldu abiada. Astiro ibili, hobeto, gizatiarrago. Erlojuaren kontrako matxinada heldu da. *Slow* mugimendua iritsi da. Bizimodu arinaren kontrako jokabide honek egunerokotasunaren zoko guztiak zipriztindu nahi ditu: elikagai, ospitale, ikastetxe, lantoki, herri eta hiriak... Orain dela ehun bat urte nagusitzen hasi zen abiaduraren kultura desagitzeko prest da *Slow* mugimendua (*Slow food*, *Slow hiriak*, *Slow bidaiak*, *Slow iburnak*, *Slow sexua*...). Italian 1986an sorturiko ekimenak zenbait adar ditu Euskal Herria.

13. or.

Eztabaida: Erretiro adina Administrazioan: igo, jaitsi ala bere horretan utzi behar da?

Langile batzuek garaia heldu eta ez dute eretiratu nahi izaten, baina heste hainbatek erretiroa beharrezko adinera iritsi aurretik eskatzen dute, lan gogorraren ostean ondo irabazitako atsedena lortu ahal izateko. Gaur egun Administrazioan erretiroa hartzeko adina 65 urtekoa izan arren, azkenaldian bitarteko hainbat formula ezartzen hasia da: txanda kontratua, lanaldi murrizketa, telelana, bigarren jardura... Horien guztien inguruko iritzia eskatu diegu Administrazioako zenbait kideri.

19. or.